

## BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

OSASUN SAILA

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

### 4942

*128/2022 DEKRETUA, azaroaren 2koa, Asociación guipuzcoana de padres de hijos con necesidades especiales «Pausoka elkarte» izeneko elkarteari onura publikokoa dela aitortzeko dena.*

Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 42. artikulua dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta dauden elkarteak onura publikokotzat aitortu ahal izango dira, baldin eta elkarteok, beren jardueren bitartez, interes orokorra edo guztien ongia lortzen laguntzen badute, eta, horretarako, eskuzabaltasun-, altruismo-, elkartasun- eta aniztasun-balioak nabarmen gauzatzen badituzte.

Lege horren babesean, Asociación guipuzcoana de padres de hijos con necesidades especiales «Pausoka elkarte» izeneko elkarteak aitormen hori emateko eskatu du. Bere ustez, elkarteak onura publikokoa dela aitortzea merezi du, premia bereziak dituzten seme-alaben babesa eta garapenaren esparruan egiten dituen jarduerak haien garapen pertsonala sustatzen laguntzen dutela ulertzeagatik, bai maila fisikoan, bai hezkuntza-, lan- eta gizarte- mailan.

Asociación guipuzcoana de padres de hijos con necesidades especiales «Pausoka elkarte» izeneko elkarteak Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta dago (zenbakia: AS/G/16840/2012), Herri Administrazio eta Justizia Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak 2012ko ekainaren 8an emandako Ebazpena dela bide.

Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen ditu bere eginkizunak.

Eratu zenetik, Asociación guipuzcoana de padres de hijos con necesidades especiales «Pausoka elkarte» izeneko elkarteak, beharrezko jarduera guztiak egiten ditu bere helburu nagusia lortzeko, diziplina anitzeko errehabilitazio integraleko eta haurren garapenerako zentroetan egindako lanaren bidez, eta gizarte sentsibilizatze eta kontzientzatzeko gauzatzen diren jardueren bidez.

Jarduera horiek guztiak interes orokorrekotzat jotzen ditu gizarteak, oro har.

Ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 45.2 artikulua xedatutakoarekin bat eginez, onura publikoa Gobernu Kontseiluak emandako dekretu bidez aitortuko da, gaiaren arabera egoki diren sailek proposamena egin ostean. Agindu hori betez, dagokion espedientea izapidetu da, eta sailek eta erakundeek egindako txostenak erantsi zaizkio espedienteari.

Ondorioz, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak, Osasuneko sailburuak eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, entitate eta erakunde interesdunek emandako txostenak ikusi ondoren, eta Gobernu Kontseiluak 2022ko azaroaren 2an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Asociación guipuzcoana de padres de hijos con necesidades especiales «Pausoka elkarte» izeneko elkarteak onura publikokoa dela aitortzea, bere jardueren bidez inte-

2022ko azaroaren 15a, asteartea

res orokorraren alde egiten duela uste baita. Elkarre hori Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarre Erregistro Orokorrean inskribatuta dago, AS/B/12593/2006 zenbakiarekin.

Horrekin batera, aitorten honi dagozkion eskubideak aitortzen zaizkio, hain zuzen ere Euskadiko Elkarre buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 43. artikuluan xedatutakoak.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko azaroaren 2an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,  
OLATZ GARAMENDI LANDA.

Osasuneko sailburua,  
MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,  
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.